

AZALA

BASQUETOUR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA - AGENCIA VASCA DE TURISMOk prozedura ireki bidez Euskal enpresa turistikoen, kalitate programetan parte hartu duten agenteen eta helmuga bakoitzeko turista bisitarien gogobetetze mailaren indizeak neurtzeko zerbitzuaren kontrataziorako lehiaketarena.

Administrazioko baldintza berezien pleguaren **INPRIMAKI AZALA**

Kontratu mota: ZERBITZUEN KONTRATUA.
Prozedura: IREKIA.

I PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

1. KONTRATUAREN XEDEA:

1.1. Kontratuaren xedea, izaera eta kontratuaren bidez estali nahi diren beharren hedapena:

Euskal enpresa turistikoen, kalitate programetan parte hartu duten agenteen eta helmuga bakoitzeko turista bisitarien gogobetetze mailaren indizeak neurtzea.

1.2. Loteen araberako banaketa: Ez.

2. KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK:

Azala, Baldintza Administratibo Berezien Plegua (BABP), Baldintza Teknikoen Plegua, Enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintza eta Kontratuaren formalizazioaren dokumentua (aurrerantzean "Kontratua")

3. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA *(eskaintzek ezin dituzte adierazitako zenbateko osoak gainditu).*

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 65.000 eurokoa da, gehi BEZari dagozkion 11.700 euroak.

4. PREZIOA ETA ORDAINKETAK.


4.1. Prezioa zehazteko sistema: Oroharreko prezioa

4.2. Prezioa ordaintzeko modalitatea:

- Ordainketa osoa: Ez.
- Ordainketa partzialak: Bai, %20 kontratua sinatzen den unean fakturatuko da eta gainontzeko %80a hilabetero zati berdinetan.

4.3. Prezioak berrikustea: Ez.

4.4. Prezioa aldatzeko klausula epeen edo errendimenduaren inguruko helburu jakin batzuk betetzearen arabera: Ez.



5. IRAUPEN EPEA.

5.1. Lanak hasteko data ofiziala: kontratuaren formalizazioarekin.

5.2. Epemuga edo azken data: sei hilabete lanaren hasiera ofizialetik..

5.3. Kontratua luzatzea: Ez.

6. BERMEAK.

6.1. Behin-behineko bermea: Ez

6.2. Behin betiko bermea: Bai.

Behin betiko bermearen zenbatekoa: esleipenaren zenbatekoaren % 5, BEZa kontutan izan gabe.

Behin betiko bermea eratzeko moduak: SPKLko 84.1 artikuluan aurrez ikusitakoak.

6.3. Berme osagarria: ez.

6.4. Bermeak eratu izana baliabide elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez ziurtatu ahalko da: Ez.

6.5. Bermeak prezioaren erretentzio edo atxikipen bidez eratzea baimenduta dago: Ez.

6.6. Harrera partzialaren kasuan, kontratistak bermearen zati proportzionala itzultzeko edo baliogabetzeko eskatu ahalko du. ez. Behin betiko bermea baliogabetu eta itzuli egingo da kontratuaren xede den prestazioa behin betikoz jaso ostean eta Azalean finkatutako bermearen epea amaitzen denean.

Bermeak honen alde eratuko dira: BASQUETOIR SA IFZ: A-95444501

6.7. Behin betiko bermeak ondoregoan aurrean erantzungo du: i) esleipendunak betebeharrak berandu edo era desegokian burutzea ii) esleipendunak Kontratua ez betetzea; iii) bere kasuan, Kontratuan zehazturiko zigorre; iv) bere kasuan, Kontratuan zehaztutako berme epean emandako zerbitzuetan nabaritutako akatsak.

7. ASEGURUAK: Enpresa esleipendunak kontratuaren xedearen arabera aplikagarriak diren derrigorrezko aseguruak izan beharko ditu. Edonola ere, ezinbestekoa izango da kontratuaren esleipendunak erantzukizun zibileko asegurua kontratatuta izatea. Aseguru horrek, gutxienez, esleipenaren kopurua estali beharko ditu.

8. LANEKO HARREMAN JAKIN BATZUETAKO SUBROGAZIOA: Ez.

9. GAUZATZE TOKIA, KONTRATUAREN XEDE DIREN PRESTAZIOAK ESKAINTZEA EDO ENTREGATZEA: Euskadi.

10. KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA ARLOKO BALDINTZAK.


Kontratu hau Euskadiko Autonomia Estatuak 6. artikuluan ezarritako eta 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, eta hura garatzen duen araudiak erregulatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzeko erregimenaren menpe dago.

Baldintza teknikoaren pleguak ezarritakoaren arabera kontratuaren xede den prestazioaren baitako ezaugarriek prestazioa beste hizkuntzaren batean edo beste batzuetan egitea beharrezkoa eta eskusiboa dela eskatzen dutenean izan ezik, kontratua gauzatzeko baldintza izango da bi hizkuntza ofizialak erabiltzea eta hori ez betetzetik eratorriko dira oro har kontratu honetako edozein klausula ez betetzeko aurrez ikusitako ondorioak.

Kontratua gauzatzeko garaian, kontuan hartu behar dira pleguko dagokion klausulan ezarritako gauzatzeko hizkuntza arloko baldintza zehatzak.

11. GAUZATZEKO BESTE BALDINTZA BEREZI BATZUK.

11.1. Enpresa kontratistak, kontratua gauzatzeko garaian, lan eta gizarte txertaketa alorrean gauzatzeko baldintza bereziak, gizon eta emakumeen berdintasunarenak, enplegu kalitatearena



eta oinarritzko lan eskubideena, ingurugiroarena eta ondorengo pleguen klausulan ezarritako segurtasunarenak eta laneko osasunarenak bete behar ditu.

12. ARAU HAUSTE JAKIN BATZUEN KALIFIKAZIOA: EZ.

13. ZIGORRAK. Zigorak ezarri ahalko dira akatsekin egindako betetzeengatik edo SPKLko 196. artikuluan aurrez ikusitako ez betetzeengatik.

14. AZPIKONTRATAZIOA: BAI. BABP-n zehaztutako baldintzen arabera.

15. PRESTAZIOEN IRAUPEN ETA BERMERAKO EPEAK.

15.1. Kontratuaren xede diren prestazio guztiak jasotzeko epeak.

- **Guztira:** sei hilabete kontratuaren formalizaziotik

15.2. Bermearen epea: hilabete bat, prestazioak BABPan zehaztutakoaren arabera behin betikoz jaso diren egunetik zenbatzen hasita.

16. KONTRATUA ETETEKO KAUSAK.

16.1. Kontratua eten ahal izateko, **oinarritzko kontratu mailako betebeharrak gisa kalifikatuko dira**, Kontratuaren araudian eta BABPan kalifikatutakoez gain, hauek:

- Baliabide pertsonalak eta materialak atxikitzeko konpromisoa.


16.2. Era berean, SPKL eta BABPan aurrez ikusitakoaz gain **eteteko kausa gehigarri** hauek ezarri dira:

- Araudia eta laneko segurtasun eta osasun arloko klausulak ez betetzea.
 - Araudia eta azpikontratazio eta lagapen mailako klausulak ez betetzea.
-

17. KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOAREKIN LOTURA DUTEN BALDINTZA GEHIGARRIAK: EZ.

18. LANEKO PROGRAMA. Urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretuaren 198. artikuluan Esleipendunak Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko (HAKLAO) aurrez ikusitako laneko programa aurkeztu beharko du: **BAI**

18.1. EPEA LUZATZEA: SPKLko 197.2 artikuluan aurrez ikusitako kasuan soilik luzatu ahalko dira epeak (kontratatari egotz ezin dakioken atzerapena dela eta), beti ere hasera batetan finkatutako epea bukatuz gero luzapenik ezin diatekela egin kontutan izanik.



II

**KONTRATUAREN PROZEDURAREN EZAUGARRIAK, ENPRESEN PARTE HARTZEA ETA
AUKERAKETA ETA ESKAINTZAK**

20. INFORMAZIOA ETA PLEGUAK JASOTZEKO ETA KONTRATAZIOA EGITEKO ORGANOA:

20.1. Entitate kontratatzailea: BASQUETOURL SA (aurrerantzean, "BASQUETOURL" edo "ENTITATE KONTRATATZAILEA")

20.2. Espediente zenbakia: B2011012

20.3. Harremanetarako: Nayara Ayo
Telefonoa: +34 94 607 75 98
Telefaxa: +34 94 607 75 95
Posta elektronikoa: nayo@basquetour.net

20.4. Kontratatzailearen profilera, pleguetara eta Interneteko dokumentazio osagarriara sartzea:
www.euskadi.net/turismo (ikusi BASQUETOURL Perfil de Contratante saila)

20.5. Dokumentuak eta informazioa jasotzeko epemuga: 2011.eko ekainak 3.a

21. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENPE DAGOEN KONTRATUA: EZ, 2.MAILAKO HARMONIZATU GABEKO KONTRATUA, BASQUETOURL-EN IKAB-EN ARABERA.

22. KONTRATAZIO PUBLIKOARI BURUZKO AKORDIOAK (ACP) ESTALITAKO KONTRATUA: EZ.

23. AURREKONTUAREN ESLEIPENA: Basquetour-ren lehiakortasun sailari esleitutako aurrekontua helburu horretarako.

24. ESLEIPENAREN IZAPIDETZEA, PROZEDURA ETA MODUA.

24.1. Izapidetzea:

- Ohikoa: bai.

24.2. Prozedura:

- Irekia: bai.


24.3. Modua:

- Eskaintzak baloratzeko garaian irizpideen aniztasuna dago: bai.

25. PROPOSAMENAK AURKEZTEA:

25.1. Aurkezteko epemuga: 2011.eko ekainak 3.eko 12:00etan.

25.2. Aurkezteko tokia: Basquetour, SA, Urkixo zumarkalea, 36, 5. solairua. 48011 BILBO



Astelehenetik Ostegunera: 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara
Ostiraletan: 09:00etatik 14:30etara

25.3. Aldaketak onartzea: Ez.

25.4. Baliozko erizpideetan oinarrituz ebaluatuko den (B gutunazala) dokumentazioaren irekiera publikoa egingo den data, ordua eta tokia: 25.2.an agerturiko BASQUETOIR-en helbidean. Data eta ordua korreo elektroniko bidez jakinaraziko zaie lizitatzailerei, proposamenean notifikazioetarako zehazturiko helbidera zuzenduta, eta kontratatzaile profilean argitaratuko da ere.

25.5. Formula bidez ebaluatuko den (C gutunazala) dokumentazioaren irekiera publikoa egingo den data, ordua eta tokia: 25.2.an agerturiko BASQUETOIR-en helbidean. Data eta ordua korreo elektroniko bidez jakinaraziko zaie lizitatzailerei, proposamenean notifikazioetarako zehazturiko helbidera zuzenduta, eta kontratatzaile profilean argitaratuko da ere.

25.6. Formula bidez baloratuko ez diren erizpideak aztertze (B gutunazala) aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Baldintza teknikoen pleguan zehaztutako lanak burutzeko metodologia, kronograma, komunikazio sistema, egin beharreko inkesten eredu eta bukaerako txostenaren ereduaren azalpena.
- Proiektuari aurre egiteko talde tekniko: jarduera bakoitzean erabilitako giza baliabideen profila (prestakuntza eta esperientzia) eta atal bakoitzean taldeko kideek izango duten arduraldia.

25.7. Formula bidez baloratuko diren erizpideak aztertze (A gutunazala) aurkeztu beharreko dokumentazioa:

BABParen 1.eranskinen eredu jarraituz (edonola ere, prezioak ezin izango du Azalaren 3. ATALEAN ezarritako gehiengo aurrekontua gaitzitu gabe) eta Baldintza Teknikoen Pleguan agertutakoa kontutan izanik. BEZari dagokion zenbatekoa aparteko partida bezala agertu beharko da. .


Aurreztertutako eskaintzak zerbitzuaren burutzapenerako beharrezko zerga (BEZa izan ezik), erasandako gastu, aseguru, muga-zerga, lizentzia eta baimen guztiak barne hartu behar ditu.

Aldaketak aurkeztea onartzen bada, lizitatzailerek aukera bakoitzaren zenbatekoa bereiztu beharko du ereduaren.

26. GAITASUNAREKIN ETA KAUDIMENAREKIN LOTUTAKO BETEBEHARRAK

- Finantza erakundearen txostena, edo, behar izanez gero, arrisku profesionalen gaineko kalte-ordainen aseguruaren egiaztagiria.
 - Azken hiru urteetan egindako pareko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, data eta onuradun publiko edo pribatuak adierazita..
-

27. ESLEIPEN IRIZPIDEAK:



A. Formula bidez ebaluatuko ez diren erizpideak:

- Memoria teknikoa: 39 puntu gehienez
Balorazio hobe jasoko du Baldintza Teknikoen Pleguan zehaztutako lanetarako lan metodologia (planifikazioa, proposaturiko operatiba, e.a.) aproposena aurkezten duenak.
- Lan Taldea: 10 puntu gehienez
Balorazio hobe jasoko du Baldintza Teknikoen Pleguan azaldutako lanak egikaritzeko talde egokiagoa (dedikazioa, ahalmena eta landu beharreko gaien eta sektore turistikoaren ezaguera) aurkezten duena.

B. Formula bidez ebaluatuko diren irizpideak:

- Eskaintza ekonomikoa l. Eranskinerakin bat: 51 puntu gehienez. Balorazio hobe jasoko du hurrengo formula erabiliz,
$$\text{Puntuazioa} : (\text{Proposamen merkeena} / \text{Proposamena}) \times 51 \text{ puntu}$$

Bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdintasuna balego, esleipena zehazteko oinarritzat hartutako irizpideak kontuan hartuta, lehentasuna izango du kaudimen teknika egiaztatzeko unean langile minusbaliatuak plantilla osoaren % 2 baino gehiago duen enpresak aurkeztutako proposamenak SPKLko Seigarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoa betez


28. BALIO JUDIZIOA EGITEA ESKATZEN DUEN APLIKAZIOA DUTEN IRIZPIDEEN ARABERAKO ESKAINTZAK EBALUATUKO DITUEN ORGANO ESPEZIALIZATUA: Ez.

29. BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK ESKAINTZAN: Bai, finkatutako gehienezko zenbatekoarekiko %25eko beherakada gainditzen duen proposamenik ez da onartuko.

30. BASQUETOUREK KONTRATUA GAUZATZEARI UKO EGITEA ETA PROZEDURA ATZERA BOTATZEA: SPKLko 139. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera xedatuko da.**30.1. Uko egiteagaitik konpentsazioa:** ehun (100) euro

31. IRAGARKIA EBAO-RA BIDLITAKO DATA: Ez dagokio

32. BESTELAKO INFORMAZIOA: lizitatzailleek bere proposamenak hilabete batez (1) mantendu beharko dituzte.

33. PUBLIZITATE GASTUAK: ez dagokio

PROZEDURA IREKI BIDEZ EUSKADIN NATURA ETA ABENTURA PRODUKTUA BULTZATZEKO PLANA GARATZEKO BULEGO TEKNIKOAREN KUDEAKETA ZERBITZUAREN KONTRATU ESLEIPENAREN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA

1. ERREGIMEN JURIDIKOA

1.1. Kontratuak izaera pribatua du eta hauek izango dira hura xedatzen duten arauak:

- Prestakuntzarekin eta esleipenarekin lotutako gaietarako, administrazioko klausula hauek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko (SPKL) 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 175. artikulua eta bat datozenek eta BASQUETOUREko Kontrataziorako Barneko Jarraibideek xedatutakoak.
- Eraginarekin eta bertan behera uztearekin lotutako gaien burutzapenarako, Zuzenbide Pribatuko Arauak.

1.2. Lanak egiteko erabilitako langileei dagokionez, kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dauden lan eta gizarte legediak.

1.3. Kontratua, kontratuaren eranskinak edo instrukzioak, pleguak edo Administrazioak aldarrikatutako mota guztietako arauak, adostutakoa betetzean aplika daitezkeenak, edozein terminotan ez ezagutzeak ez du esan nahi enpresariak bete beharko ez dituenik.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburua izango da BABP honetako **KARATULAKO 1 ATALEAN** azaldutako zerbitzuak betetzea, eta hori Baldintza Teknikoen Pleguetan ezarritako espezifikazio teknikoaren arabera egingo da. Txosten hori Baldintza Teknikoen Plegua honen barruko zatia izango da eskagarritasunari dagokionez, eta ondorioz, Txostena ere Kontratu barruan geratuko da, eta kontratuaren izaera izango du derrigorrez.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratazio honetarako gehieneko prezioa Plegu honetako **KARATULAKO 3 ATALEAN** agertzen da.

4. ESLEITZEKO MODUA.


Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hainbat irizpide baloratuz zehaztuko da. Irizpide horiek Azaleko **27 ATALEAN** agertzen direnak dira.

5. ENTREGA/GAUZATZE EPEA.

5.1. Lanak egiteko epea BABP honetako Karatulako 5 atalean adierazitakoa izango da, zerbitzua eskeintzen hasten den unetik berme epea bukatu arte.

Finkatutako epeak pixkanaka betetzen direla bermatzeko, behar diren epe partzialak eskaintzatik ateratakoak edo BASQUETOUREk onartutako Lan



Programan ezarritakoak izango dira.

Epe horiek guztiak , kontratua sinatzen den egunetik izango dira kontutan.

5.2. Baldintza Teknikoen Pleguetan lanak egiteko epe osoa gutxitzeko aukera ematen bada edo epe partzialak finkatu eta jarduerak ordenatzen badira, derrigorrez bete beharko dira horrela eskaini edo finkatuz gero, hurrenez hurren.

5.3 Azaleko 5.3 ATALEAN hala badago aurrez ikusita, kontratua luzatu egin ahal izango da prestazioak hasierakoaren ezberdina den beste aldi baterako errepikatu ahal izateko. Luzapen hori elkarren arteko adostasun bidez egingo da eta haren epeak ezingo du gaingitu Azaleko 5.3 ATALEAN aurrez ikusitakoa.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

BABP honen Karatulako 4 ATALEAN ezarritakoa beteko da.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

7.1. Proposamenak egin ahal izango dituzte Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek; hots, jarduteko gaitasun osoa dutenek eta kaudimen ekonomikoa, teknikoa edo profesionala eta finantza kaudimena ziurtatzen dutenek. Bestela, zerbitzu enpresa gisa sailkatuta daudela erakutsi beharko dute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak hala adierazita.


7.2. Kontratu jakin baterako behar den kaudimena ziurtatzeko, enpresariak beste erakunde batzuen kaudimena edo baliabideak erabili ahal izango ditu, haiekin dituen loturen izaera juridikoa aintzat hartu gabe; betiere, kontratua gauzatzeko bitarteko horiek badituela erakutsiz gero.

7.3 Lizitatzailleek egindako proposamenetan adierazitako lizitazio motan edo motetan eta kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren zifra zehatz eta jakinetan, indarrean dauden xedapenen arabera aplikatu ahal izango diren zergak sartuta egongo dira; BEZa izan ezik, nolanahi ere, aparteko partida gisa azalduko baita.

7.1. Interesdunek, behar izanez gero, haien intereseko agiriak aztertu ahal izango dituzte dagokion egunkari ofizialen argitaraturiko lizitazioaren iragarkian agertzen den tokian.

7.5. Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, baina proposamenean egokitzen jotzen diren nahi adina emaitza aldagarri jarri ahal izango dira, Plegu honetako **KARATULAKO 25 ATALEAN** aurrez ikusitako baldintzak ezarri badira.

Ezingo da proposamenik sinatu aldi baterako elkarte gisa beste batzuekin, proposamena banaka egin badu (loteak egonez gero, lote ezberdinak direnean izan ezik). Printzipio hori betetzen ez bada, pertsona horrek aurkeztutako proposamen guztiak onartu gabe geratuko dira, eta SPKLko 129.3 artikuluan aurrez ikusitakoa



aplikatuko da.

Dena den, kontratu honetan hainbat lote egonez gero, lizitatzailer bakoitzak helburuaren osotasuna eskaini ahal izango du, eskaintzak loteka edota lote jakin batzuetan (bat edo hainbat) zatituta.

7.6. Dokumentazioa euskaraz edo gazteleraz aurkeztuko da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietako batera modu ofizialean itzulita aurkeztuko dute dokumentazioa.

7.7. Eskaintza bat aurkeztearekin, enpresariak baldintzarik gabe onartu beharko ditu BABP honetako klausulak eta kontratuari lotutako beste agiriak, hala ere aurkezturiko datu guztien zuzentasuna eta zerbitzuaren kontrataziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituelaren ziurtagiria.

8. PROPOSAMENEN EDUKIA.


8.1. Lizitatzailerak **itxitako hiru gutun-azal** aurkeztuko dituzte eta lizitatzaileraren edo haiek ordezkatzeko dituen pertsonaren sinadura izan beharko dute. Gutun-azal bakoitzaren **kanpoaldean** LIZITATZAILEAREN IZEN-ABIZENAK EDO ENPRESAREN IZEN SOZIALA ETA KONTRATUAREN XEDEA agertu beharko dira. Xede hori BABP honetako Azaleko **1 ATALEAN** agertzen dena da. Gainera, oharpenetarako helbide bat zehaztu beharko da, posta elektronikoko batekin batera.

8.2. Hiru gutun-azalak BASQUETOUREn, Bilbon, Urkixo Zumarkalea 36, 5. solairuan (hark horren ziurtagiria emango dio lizitatzailerari) aurkeztu beharko dira BABP honetako Azaleko **25 ATALEAN** edota, dagokionean, lizitazio iragarkian agertzen diren epean eta orduan.

Proposamenak posta bidez bidaltzen direnean, lizitatzailerak bidalketa egin izanaren data justifikatu beharko du Correos-en bulegoan, eta kontratazio organoari jakinarazi beharko dio eskaintza bidali duela telefax, fax edo telegrama bidez egun berean. Bi baldintza horiek aldi berean bete ezean, ez litzateke proposamena onartuko kontratazio organoak epea amaitu den dataren ondoren jasoko balu. Dena den, proposamena jaso gabe aipatutako datatik 10 egun natural igaroko balira, proposamena ez litzateke inola ere onartuko eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko (RGLCAP, gaztelaniaz) 80. artikuluan aurrez ikusitakoa izango da aplikagarri.

8.3. Gutun-azalen barnean edukia zehaztu beharko da orri independente batean numerikoki honela adierazita: **"A" gutun-azalean** 8.5 hurrengo klausulan agertzen diren dokumentu administratiboak; **"B" gutun-azalean** Formula bidez ebaluatuko ez diren irizpideei buruzko dokumentazioa ; eta **"C" gutun-azalean** formula bidez ebaluatuko diren irizpideei buruzko dokumentazioa.

8.4. Proposamenak entregatzeak esleituz gero lizitazioa onartzeko beharra ezartzen die lehiatzaileei. Proposamena aurkeztu ostean, ezingo da kendu arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik (hala ulertzen badu BASQUETOUREk) eta lizitatzailerak azaleko 32 ATALEAN agerturiko epean mantendu beharko dute.



Proposamenen bat justifikatu gabe kenduz gero, lizitatzailari behin-behineko bermea konfiskatuko zaio hori eratzea eskatu bazaio Azaleko 6 ATALEAN ezarrita dagoenaren arabera.

8.5. "A" gutun-azala: Dokumentazio Administratiboa.

Dokumentazio hau bildu beharko da:

(i) Konkurtsatzeko gaitasuna:

- (a)** Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, honako hauek gehitu beharko dira baldintza hori aplikagarria den merkataritzako legeriaren arabera galdagarria denean: Merkataritzako Erregistroan aurkeztutako eratze-eskritura eta aldatze-eskriturak (dagokionean).

Hala ez bada, jarduera arautzen duten arauak zehaztuta dauden eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo fundazio-ekintza aurkeztuko dira. Horiek guztiak dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

Europar Batasuneko kide diren estatuetak (espainiarrak ez) enpresek erregistro profesionalean edo komertzialean izena emanda daudela egiaztatu beharko dute erregistro hori dagokion estatuko legeriak eskatzen duenean.

Atzerriko gainerako enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion estatuko Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo enpresaren egoitza kokatuta dagoen lurralde-esparruko Kontsuletzeko Bulegoak emandako txostenaren bidez.


- (b)** Enpresaburu indibiduala bada, lizitatzailaren ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia (espainiarren kasuan, NAN agiria eta, atzerritarren kasuan, pasaporte eta edo nortasuna ziurtatzen duen beste edozein dokumentu ofizial).

(ii) Ahalordeak:

Lizitatzailaren ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia (espainiarren kasuan, NAN agiria eta, atzerritarren kasuan, pasaporte eta edo nortasuna ziurtatzen duen beste edozein dokumentu ofizial) aurkezteaz gain, bere aldeko zuzenbidearen arabeko ahalorde askietsia gehitu beharko du. Aipatutako ahalorde horrek ordezkatuaren izenean kontratuak harpidetu ahal izateko konkurtsatzeko eskumena eman beharko dio eta, dagokionean, Merkataritza Erregistroan izena emanda egongo da.

(iii) Konkurtsatzeko eragozpenik ez duela egiaztatzen duten adierazpenak:

SPKLko 130.1 c) artikulua aipatzen duen adierazpen arduratsua. Horren arabera, lizitatzaila administrazio publikoekin kontratuak egiteko debeku-kausaren eraginpean (Lege bereko 49.1 artikulua biltzen dituenak) ez



dagoela aitortu beharko du 2. ERANSKIN gisa atxikita dagoen ereduaren arabera.

Era berean, lizitatzailerak kontratatzeko debeku-kausa horien eraginpean ez dagoela zehazten duten aitorten erantzuleak ere onartuko dira notaritza edo agintari administratiboen aurrean eginda badaude.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen aitorten erantzuleak espresuki bilduko du lizitatzailerak indarrean dagoen xedapenek ezarritako zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela. Horrekin lotuta, horrek ez du salbuetsiko enpresaburuak baldintza hori egiaztatuko duen justifikazioa aurkeztu behar izatea esleipena haren alde burutu aurretik aipatutako SPKLko 130.1 c) artikulua xedatutakoa betez.

(iv) Behin-behineko bermea:

Azaleko 6. ATALAK hala xedatuz gero, berme hori galdagarria balitz, gainera, behin-behineko bermea eratu izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

(v) Kaudimen teknika eta ekonomia eta finantza arlokoa:

Lizitatzailerak beren kaudimen teknika eta ekonomia eta finantza arlokoa egiaztatu beharko dute karatula honetako 26. ATALEAN zehaztutako moduan.

(vi) Zerbitzua/Proiektuaren exekuzioan ingurugiroarekiko kalteak murrizteko enpresak dauzkan medioen erlazioa (4. Eranskina). Eranskinean ezarritako baldintzak betetzea ez da derrigorrezkoa


(vii) Enpresen aldi baterako elkarteak:

Hainbat enpresa lizitaziora aurkeztzen denean aldi baterako elkarteak eratuta, eta azalean beste zerbait xedatzen denean edo sailkapena eskatu denean izan ezik (kasu horretan, SPKLko metaketa-erregimenak xedatutakoa bete beharko da), hura osatzen duten enpresa bakoitzak egiaztatu beharko ditu jarduteko gaitasuna eta kaudimena aurreko klausuletan zehaztutako moduan. Gainera, kasu horietan, honako hauek zehaztu beharko dira:

(a) Harpidetu duten enpresaburuaren izenak eta egoerak.

(b) Elkartearen bakoitzak izango duen partaidetza.

(c) Kontratuak iraungo duen bitartean, jabetzaren aurrean haien guztien ordezkaritza-lan osoa egingo duen pertsona edo entitatea. Horren arabera, Erakunde Kontratatzailearen aurrean derrigortuta geratuko da modu solidarioan.



Lizitazioa aldi baterako enpresen elkarteari esleitutako kasuan bakarrik ziurtatu beharko dute elkartearen eraketa, eskritura publikoaren bidez, Erakunde Kontratatzaileraren aurrean.

(viii) Atzerriko enpresen jurisdikzioa:

Atzerriko enpresaburuek soilik Bilboko auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute kontratutik zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako eta, dagokionean, lizitatzailerari dagokion atzerriko jurisdikzio-eskumenari uko egongo diote.

8.5.1 Langile minusbaliatuak plantilla osoaren ehuneko 2 baino gehiago diren kasuan, eta SPKLko seigarren xedapen gehigarrian eta Osasun eta Kontsumo Ministerioaren 2001eko abenduaren 17ko aginduan ezarritakoa betetze aldera, hori egiaztatzen duen ziurtagiria edo dagokion dokumentazioa aurkeztuko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan edo Estatuko Lizitatzailer eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresek (i) eta (ii) ataletan aipatutako baldintzak egiaztatu ahal izango dituzte sailkapeneko komunitateko egiaztagiriaren edo erregistroak emandako ziurtagiriaren bidez. Horrekin batera, ziurtagirian zehaztutako baldintzetan aldaketarik ez dela izan adierazten duen lizitatzailerak egindako aitorten erantzulea aurkeztu beharko da.

Lizitatzailerak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du hori Notario Araudiak eta Legeak ezarritako legeriaren eta legitimazioari dagozkion baldintzen arabera eta notariala bada. Administrazioako dokumentuen kasuan, jatorrizkoak edo behar bezala legeztatutako kopia edo fotokopia bidez aurkeztu beharko dira.


Aurrekoa hala izan arren, fotokopiak onartuko dira lizitatzailerak behin betiko esleipenaren aurretik eskatutako dokumentazio osoa baimentzen baldin bada.

8.6. "B" gutun-azala: Formuletan oinarrituz ebaluatuko ez diren erizpideei buruzko dokumentazioa

8.6.1. Edonola ere, Baldintza Teknikoetan eta Plegu honetako Karatulako **27.A. ATALEAN** jasotako esleipen irizpideak neurtzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, SPKLaren 134.artikuluaren aurrikusten den bezala, eta bereziki karatulako **25.6 ATALEAN** ezarritakoa.

8.6.2. Dokumentazioa paperezko euskarrian eta euskarri informatikoan aurkeztu beharko da.

8.6.3. Proposamen ekonomikoa ezin da dokumentu hauetan azaldu, ezta baliozko erizpideetan oinarrituta dagoen bestelako dokumentazioa.



8.7. "C" gutun-azala: Formula bidez ebaluatuko diren irizpideei buruzko dokumentazioa.

8.7.1. **Karatularen 25.7 ATALEAN** zehaztutako dokumentazioa aurkeztu behar da.

8.7.2. Aldaerak aurkeztea onartuz gero, horiek eskaintzen dituzten lizitatzailleak aldagai horiekin lotura duten proposamen ekonomikoak sartu beharko dituzte.

8.7.3. Proposamen ekonomikoa modu mekanizatuan idatzita eta sinatuta aurkeztuko da; eskaintza argitasunez ikustea galarazten duten hutsuneak, akatsak edo ezabapenak dituzten proposamenak ez dira onartuko. Zenbakiz eta letraz adierazitako kopuruak berdinak ez badira, azkena nagusituko da.

8.8. Aipatutako dokumenturen bat ez aurkezteak edo aurreko ataletan aurrez ikusitakoa zehatz-mehatz ez betetzeak eskaintza ez onartzea ekarriko luke, akatsak konpontzearekin lotutako RGLCAPeKo 81. artikuluan xedatutako kasuetan izan ezik.

9. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA.


9.1. "Dokumentazio Administratiboa" gutun-azala irekitzea eta kalifikatzea.

Behin proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, Erakunde Kontratatzaileak "Dokumentazio Orokorra eta Erreferentzia ekonomikoak, finantzarioak, teknikoak edo profesionalak" A gutun-azalean aurkeztutako agiriak aztertu eta kalifikatzeari ekingo dio saio pribatuan (betiere, proposamena garaiz eta forman aurkeztua izan baldin bada).

Aurkeztutako agirietan akats edo ez-egite konpongarririk ikusiko balitz eragindako enpresei jakinaraziko die jakinarazpen-helburuetarako proposamenean zehaztutako helbide elektronikoan eta, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango zaie enpresek BASQUETOURL aurrean zuzenketa aurkeztu dezaten. Aurrekoari kalterik eragin gabe, aipatutako gorabeherak kontratatzailearen profilaren bidez publiko egingo dira.

Aurreko klausulak aipatzen duen zuzenketatik kanpo, Erakunde Kontratatzaileak gaitasun- eta kaudimen-baldintzak egiaztatzeko ondorioetarako, enpresarengandik egiaztagiriei eta aurkeztutako agiriei buruzko argibideak edo osagarri liratekeen beste agiri batzuk aurkezteko ere eskatu ahal izango dizkio. Horretarako, bost eguneko epea izango du eta hurrengo paragrafoan aipatzen den onarpen-aitorpenaren ondoren inola ere ezingo da aurkeztu.

Dokumentazioa kalifikatu eta, dagokionean, gertatu diren akatsak edo ez-egiteak zuzendu ondoren, Erakunde Kontratatzaileak gaitasuneko eta kaudimeneko baldintzak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu eta espresuki onartutako enpresak, kanporatutakoak eta kanporatutakoen arrazoiak azalduko ditu.



Lizitazioan onartutako enpresen zerrenda, baztertutakoena eta baztertutako kausena, parte hartu duten enpresen eskura izango da eta Kontrataziorako Mahaiaren aurrean kontsultatu ahal izango dute. Aurrekoari kalterik eragin gabe, BASQUETOUREk sistema elektronikoen, kontratatzailearen profilaren edo prozeduraren arabera egokiak diren beste bitarteko batzuen bidez jendaurrean jarri ahal izango du zerrenda. Edozein kasutan, aipatutako zerrenda jendaurrean irakurriko dute B gutun-azalak publikoki irekitzeko ekitaldian eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie.

9.2."Formuletan oinarrituta ebaluagarriak ez diren irizpideei dagokien dokumentazioa" B gutun-azala irekitzea eta ebaluatzea

Behin "A" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta, dagokionean, akatsak konpondu ondoren, Azaleko 25.4 atalean aipatutako toki, egun eta orduan, saio publiko bidez Erakunde Kontratatzailea aurkeztuko da helburu hauekin:


- a. Lizitatzaileei zer proposamen onartu duten jakinaraztea eta, dagokionean, zein ez duten onartu eta ez onartzeko arrazoiak zein izan diren adieraztea. Komunikazio hori egin arren, onartuak izan ez diren enpresen zerrenda BASQUETOUREn Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da eta onartuak izan ez diren enpresei edozein bitartekoren bidez jakinaraziko zaie.
- b. "B" gutun-azala irekitzea eta irakurtzea. Helburu horrekin, lizitatzaileei edo haiek legez ordezkatzeko dituenari gonbidapena bidaliko zaie ekitaldira joan eta dagozkion gutun-azaletan aldaketarik ez dela gertatu egiazta dezaten.

"B" gutun-azalean bildutako dokumentazioa enkarguaren sustatzailea den Saileko zerbitzu teknikoei entregatuko zaie aurkeztutako proposamenak balora ditzaten.

Zerbitzu Teknikoen txostenean lizitatzaileen proposamenak batera baloratuko dira, eta kontuan izango dira baloratzeko finkatutako irizpideak eta emandako ponderazioa.

Dokumentazio teknikoa ebaluatzeko emandako epean, Erakunde Kontratatzaileak bidaliko zaizkio aztertutako dokumentazioa (gutun-azaletan bildutakoa) eta ebaluazio-txostena. Harekin batera, aparteko orri batean, jasotako gutun-azalen zerrenda eta enpresa bakoitzak aurkeztutako dokumentazioa bidali beharko da. Mahaiak aurkeztutako edozein dokumenturi buruzko azalpenak eskatu ahal izango dizkie lizitatzaileei.

Ebaluazioaren emaitza kontratatzailearen profilaren edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie. . Edozein kasutan, emaitza hori jendaurrean irakurriko dute C gutun-azaletan bildutako eskaintza ekonomikoak publikoki irekitzeko ekitaldian.



9.3. "Formula bidez ebaluatuko diren irizpideei buruzko dokumentazioa" C gutun-azala irekitzea eta ebaluatzea

Behin (B) gutun-azalak aztertu eta ebaluatu ostean, Erakunde Kontratatzailea aurkeztuko da saio publiko bidez Karatulako 25.5 ATALEAN zehaztutako tokian, egunean eta orduan honako helburu hauekin:

- (a) Lizitatzailerei (B) gutun-azaletako balorazioaren emaitza jakinaraztea
- (b) (C) Gutun-azala irekitzea eta irakurtzea. Helburu horrekin, Mahaiko presidentetzak lizitatzailerei edo haiek legez ordezkatzeko dituenari gonbidapena bidaliko die ekitaldira joan eta eskaintza ekonomikoekin lotutako gutun-azalean aldaketarik ez dela gertatu egiazta dezaten.


9.4. Proposamenak aztertzea:

Aurkeztutako eskaintzak ikusi eta behin betiko balorazioa egiteko behar dituen txostenak eskatu ondoren, Erakunde Kontratatzaileak aurkeztutako proposamenak sailkatzen dituen txostena prestatuko du. Proposamen horiek ordena beharrezkoan sailkatuko ditu azalean zehaztutako esleipen-irizpideen arabera eta, bertan, ekonomikoki onuragarriena den proposamena aurkeztu duen lizitatzaileri kontratua esleitzea proposatuko du.

9.5 Eskaintzak sailkatzea eta uko egitea.

- 9.5.1. Kontratatazio Organoak, zerbitzu teknikoek aurkeztutako txostena ikusi ondoren, beharrezko ordenan eta Azalean zehaztutako esleipen-irizpideen arabera sailkatuko ditu aurkeztutako eta neurrigabetzat edo anormaltzat hartu ez diren proposamenak. Edozein kasutan, BASQUETOUREk aurkeztutako proposamenetan beharrezko egiaztapenak egiteko gaitasuna izango du erreserbatuta.
- 9.5.2. Erakunde Kontratatzaileak kontratua egiteari uko egingo balio, lizitatzaileri kalte-ordaina eman beharko die. Horren arabera, azaleko 30.1 ATALEAN zehaztutako zenbatekoa ordaindu beharko die.
- 9.5.3. Bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdintasuna balego, esleipena zehazteko oinarritzat hartutako irizpideak kontuan hartuta, lehentasuna izango du kaudimen teknikoa egiaztatzeko unean langile minusbaliatuak plantilla osoaren % 2 baino gehiago duen enpresak aurkeztutako proposamenak SPKLko Seigarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoa betetz.

Erakunde Kontratatzaileak ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileri hamar egun balioduneko epea emango dio (edo bost egunekoa izapidetzea presazkoa bada) errekerimendua jaso duen egunetik zenbatzen hasita eskatutako dokumentazioa aurkez dezan edo Kontratatzaileari baimena eman diezaion dokumentazio hori lortzeko. Edozein kasutan, honako hau izango da dokumentazioa:



- Foru Ogasunak/Ogasunek eta/edo, behar izanez gero, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, zerga betebeharrak beteta dituela ziurtatzen duena, eta/edo dagokion tokiko erakundeak zergen inguruan emandakoa. Era berean, aurkeztu beharko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ekitaldi horretako altaren ziurtagiria edo azken ordainagiria, aipatu zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren aitorpenarekin batera (3. ERANSKINA).

Dokumentazio hori, BASQUETOUREk hala zehazten duen kasuetan, dagozkion zerga administrazioetatik lortutako informazioaren lagapenarekin ordezkatu ahalko da (baldin eta enpresa lizitatzailleek edota esleipendunen baimena badago).

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela ziurtatzen duen ziurtagiri positiboa edo, behar izanez gero, dagokion Mutuan emandako alta.
- Behin betiko bermea eratu izanaren agiria, Karatulako **6 ATALEAN** horrela aurrez ikusi den kasuan. Bermea eratzeko baliabideak SPKLko 84. artikuluan aurrez ikusitakoak izango dira.
- Eskaintza Enpresen Elkarrekin gisa egin bada, enpresen elkarrekin eratu izanaren eskritura publikoa eta haren IFK.
- Kontratuaren burutzapenerako hitzemandako medioak benetan izatearen akreditazioa, horrela eskatu bada BABPan


Klausula honek aipatzen duen errekerimendua dagokion epean behar bezala beteko ez balitz, lizitatzailleak bere eskaintza kendu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, dokumentazio hori hurrengo lizitatzailari eskatuko zaio eskaintzetarako erabili den sailkapeneko ordenaren arabera.

9.6. Kontratua esleitzea

Aurreko klausulak aipatutako dokumentazio jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean (edo hiru egunekoan, izapidetzea presazkoa bada), esleipendunak zehaztutako dokumentazioa aurkeztu badu, Erakunde Kontratatzailleak kontratua esleitzeko du salbuespen honetan izan ezik: lehiaketa esleitu gabe uztea erabakitzen duenean izan ezik, azalean zehaztutako esleipen-irizpideen arabera onargarria den proposamenik aurkeztu ez bada.

Kontratua esleitzeko ebazpena arrazoitu eta Erakunde Kontratatzaillearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da. Jarraian, lizitatzaille guztiei jakinarazi beharko zaie. Edonola ere, jakinarazpen horrek SPKL-ko 134.4 artikulua zehaztutako baldintzak bildu beharko ditu.

9.7. Aurkeztutako proposamenak, onartutakoak zein ireki gabe baztertuak izan direnak edo behin irekita, baztertu direnak, espedientearen gordeko dira helegitea



jartzeko epea igaro arte, eta helegiterik ez egotekotan, dokumentazioa interesduen eskura izango da hortik aurrera

10. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua BABP honetan bildutako xedapenen arabera formalizatuko da. Lote bat baino gehiago balego eta guztiak kontratista berari esleitu bazaizkio, Erakunde Kontratatzailleak erreserbatuta izango du lote guztiak edo lote batzuk biltzen dituen kontratu bakarra harpidetzeko gaitasuna.

Kontratua arau hauen arabera formalizatuko da:

- (i) Kontratuaren aurkako helegite berezia jarri ahal izango balitz kontratazio arloan SPKLko 310.1 artikulua xedatutakoa betez, kontratua ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidali denetik zenbatzen hasi eta 15 egun baliodun igaro arte. Aipatutako epe hori inork kontratuaren formalizazioa etetea dakarren helegiterik aurkeztu gabe igaro bada, Erakunde Kontratatzailleak esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso duen hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta, gehienez, 5 eguneko epean. Gauza bera egingo du helegitea ebazteko eskuduntza duen organoak etenaldia kentzen duenean.
- (ii) Gainerako kasuetan, kontratua 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da. Epe hori lizitatzailerek eta hautagaiek esleipenaren inguruko jakinarazpena jaso duten egunetik hasiko da zenbatzen.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen kausak direla eta kontratua formalizatzen ez bada, kontratazio-organoak behin betiko bermea konfiskatzea erabaki ahal izango du behin-behineko bermearen zenbatekoaren arabera (eskatu bazen).

Kontratuak dokumentu pribatu bidez formalizatuko dira. Dena den, bi aldeetako edozeinek eskatu ahal izango du eskritura publiko egitea eta eskaera egin duen aldeak bere gain hartu beharko ditu eskritura publiko egite horretatik eratorritako gastu guztiak.

Kontratuen formalizazioa Erakunde Kontratatzaillearen kontratatzailearen profilean eta, zenbatekoa dela eta, SPKLko 138. artikuluan eskatutako baliabideetan argitaratu beharko da.


Esleipendunari zordunduko zaizkio kontratua formalizatzetik eratorritako gastu eta zerga guztiak.

Esleipendunak isilpean gorde beharko ditu kontratuaren xedearekin lotura duten eta kontratua dela eta ezagutzen dituen datuak edo aurrekariak, publikoak edo begi-bistakoak ez direnean.

11. ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

11.1 Kontratistari ordainketak.

11.1.1 Kontratistak eskaintako prestazioaren ordainketa jasotzeko eskubidea



izango du SPKLko 199. eta 200. artikuluetan eta kontratuetan ezarritako baldintzen arabera, hitzartutako prezioaren arabera.

11.1.2 Plegu honetako Azaleko **4 ATALEAN** agertzen da prezioaren ordainketa modalitatea; ordainketak hileroko maiztasuna izan dezake, urteroko bakoitzerako aurrez ikusitako prezioaren hamabirenen arabera, zerbitzuen eskaintza hori urtekoa edo urte anitzekoa bada edo kontratatutako prestazioen entrega fase ugariak gauzatzeko moduaren arabera, aholkularitzako edo laguntza teknikoko zerbitzua den kasuetan.

11.1.3 Esleipendunak prestaketa eragiketen truke ordainketa jasotzeko eskubidea izango du, horiek beharrezkoak badira. Ordainketa hori kontratuaren zenbateko osoaren % 20koa izan ahalko da gehienez RGLCAPeko 201-2 artikuluan aurrez ikusitako baldintzen arabera. Aurreratutako diru horren ordainketa egiteko, ezinbesteko baldintza izango da kontratua formalizatuta izatea.


11.1.4 Egindako lanen zenbatekoa proiektuko zuzendariaren oniritziaren bidez ziurtatuko da Azaleko **4 ATALEAN** ezarritako aldizkakotasunaren arabera. Ziurtagiri hori igorri ostean, kontratistak faktura bidali ahalko du eta BASQUETOUREk hirurogeita hamar (60) egun naturaleko epea izango du ordainketa egiteko faktura jaso duen egunetik hasita, fakturan akatsak edo okerrak dauden kasuetan izan ezik. Kasu horretan, BASQUETOUREk kontratistari jakinarazi beharko dio akatsa dagoela faktura jaso duenetik hasi eta hogeita (20) eguneko epean, hark akatsa konpon dezan.

11.1.5 Kontratistak lanak kontratuaren araberrako epean edo epeetan gauzatzeko beharrezkoa baino bizkortasun handiagoz garatu ahalko ditu lanak. Hala eta guztiz ere, egindako ziurtagirien edo gauzatutakoen zenbatekoa edozein delarik ere, ez du urte bakoitzeko urtekoari dagokion zenbatekoa baino altuagoa jasotzeko eskubiderik izango. Zenbateko hori Plegu honetako hasieran agertzen den Azaleko **3 ATALEAN** idatziz jasota agertzen da eta esleipen koefizientearen eragina jasango du edo kontratistak bere proposamenean agerturikoa, hau baxuagoa balitz.

11.2. Laneko betebeharrak

Esleitutako lana egiteko hartutako langileen inguruan, kontratistak zehatz-mehatz beteko du laneko arloaren, Gizarte Segurantzaren, minusbaliatuak gizarteratzearen eta laneko arriskuak prebenitzearen inguruan indarrean dagoen araudia, eta azken horiei dagokienez, baita prestakuntza sozialaren ingurukoa ere. Era berean, konpromisoa hartuko du (behar izanez gero) azpikontratututako enpresak langileekin lanaren inguruan indarrean dagoen legedia betetzeko.

Kontratistak lana baldintza duinetan egiteko konpromisoa izango du haren enpresan nahiz azpikontratututako enpresetan, eta langileei aplikatuko zaie dagokien sektoreko hitzarmena, batez ere langileen subrogazioari dagokionez.




Esleipendunak enpresa kontratistaren eta azpikontratistaren kargura betebeharrak hartuko ditu:

- a) Prebentzio-planaren arabera, zuzendaritza-funtzioak egiten dituzten eta egingo dituzten jardueren eta hartuko dituzten erabakien multzoan lan-arriskuen prebentzioa txertatzeko beharrezko trebakuntza jaso duten pertsonak izatea.
- b) Obran aldizkako ikuskaritza-prozedurak izatea, prebentzio-antolaketaren bidez, Prebentzio Planaren egiaztapen espezifikoen prozeduran ezarritako jarraibideen arabera. Prozedura horretan Arriskuen Ebaluazioan/Segurtasun eta Osasun Planean aurrez ikusitako babes kolektiboaren neurrien aldizkako egiaztapena jaso behar da, baita NBEen erabilera efektiboa ere.
- c) Obra bakoitzeko enpresari dagokion osasun eta segurtasun arloko arduraduna izendatzea, prebentzioan espezializatutako trebakuntza izango duena eta laneko arriskuen prebentzio-plana kudeatuko duena.
- d) Segurtasunaren arloko koordinatzailearen (haren izendapenik ez badagokio, zuzendaritza fakultatiboa), enpresak esleitutako osasun eta segurtasun arloko arduradunaren eta langileek aukeratutako prebentzio arloko ordezkariaren arteko aldizkako bileren bidez koordinazioa sustatzea.
- e) Kontratuaren exekuzioan etorkinak txertatzen direnean, prebentzio-sistema egokia bermatzeko komunikazio eraginkorra ahalbidetuko duten prozedurak sustatzea.

11.3. Aseguruak.

Zehaztapen Teknikoen Txostenean modu espezifikoan aurrez ikusitakoari kalterik eragin gabe, kontratistak derrigor harpidetu beharko du zerbitzua eskaini ahal izateko erantzukizun zibileko asegurua oro har. Aseguruak alderdi orokorra, patronala eta amaitutako lanena izango ditu, eta kontratista eta azpikontratista bilduko ditu asegurudun gisa dagokionean zerbitzua gauzatzetik edo kontratuko betebeharren garapen orokorretik beste batzuei eratorritako afekzio posibleengatik galdagarriak izan daitezkeen zuzeneko eta zeharkako kalteak direla eta erreserbarik gabe aseguraturako zenbatekoaren truke.

Plegu honetako Azalean zenbateko hori aipatuko ez balitz, asegurua lanaren egikaritza aseguraturako lukeen behar adinako zenbatekoarekin harpidetu beharko litzateke. Aipatutako zenbatekoa gutxienezkoa eta banaezina dela ulertuko da (baina hedatua) eta zerbitzu osorako beste batzuen aurrean sor daitezkeen gorabeheren eragin berdina izango du indarrean dagoen araudiaren arabera, eta kasuaren eta zuzenbidearen arabera dagozkion ekintzen bidez, kontratistaren



erantzukizunari galdagarriak direnean.

Kontratistak aseguru hori kontratatzeak ez du erantzukizunetatik libre utziko; hori dela eta, aseguruaren konpainiak ezarritako dituen ez betetzeak bere gain hartu beharko ditu.

11.4. Hirugarren alde batzuen baimenak.

BASQUETOUREk bere gain hartzea egokitzen jotzen dituen kontratuak eta kudeaketak edozein izanik ere, kontratistak bere gain izango du lana behar bezala egiteko partikularren, elkarten, enpresen eta erakundearen aurrean beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak jasotzeko erantzukizuna. Baimen horiek jasotzeak eragin dezakeen kostua, dagokionean, kontratistak hartu beharko du bere gain modu eksklusiboan.

Helburu horietarako, kontratistak bere gain hartu beharko ditu eraginak jasan dituen bakoitzak ezarritako baldintza eta preskripzio guztiak, dagozkion eskubideak eta gaitasunak, zein lanaren bilakaera onerako behar adina arrazoizkoak diren edo Administrazioaren arabera egokitzen jotako eskaerak edo gomendioak erabiliz.

11.5 Exekuzioko baldintza linguistikoak


a) Errotuluak, oharrak, seinaleztapenak eta izaera orokorreko beste jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

11.6. Laneratzeko eta gizarteratzeko exekuzio-baldintza bereziak:

a) Kontratuaren esleipen-irizpide gisa balorazioari egindako izaera gehigarriarekin, kontratistak kontratatutako prestazioaren exekuzioan laneratzeko zailtasun berezian dauden langabetuen % 20 sartzeko konpromisoa hartuko du. Txertatze-ehunekoa exekuziorako beharrezkoak diren langileen guztizko kopuruaren arabera zenbatuko dira, enpresa-kontratistaren kasuan nahiz, dagokionean, azpikontratistarenean.


b) Ondorengo hauek hartuko dira laneratzeko zailtasun berezia duten pertsonatzat:

- Txertatze-hitzarmena izenpetu duten oinarritzko errenta jasotzen dutenak (programa horretako onuradun izatearen frogagiria den dagokion oinarritzko gizarte-zerbitzuen ziurtagiri bidez egiaztatuta).
- Kontratazio hau beren lehen lan-esperientzia izango den 30 urte baino gehiagoko emakumeak, baita bost urtez aktibitate gabe egon ondoren kontratatutakoak ere (lan-bizitzaren txostenarekin egiaztatuta).
- % 33ko edo gehiagoko minusbaliotasuna onartuta duten pertsona ezinduek (eskumena duen erakunde ofizialak igorritako minusbaliotasun-ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- Etxeko indarkeriaren biktimak. Egoera horretan dagoela ulertuko da indarkeria fisikoa edo psikikoa jasan duena. Indarkeria hori ezkontideak edo antzeko



afektibitate-harreman bidez modu egonkorrean hari lotuta egon den pertsonak egindakoa izan daiteke, edo aurrekoek, hurrengoek edo anai-arrebek. Egoera horiek biktimaren aldeko babes-agindua edo kondena-sententzia bidez egiaztatuta egon behar dute, edo salbuespenez, babes-agindua izapidetzen den bitartean, salatzailea indarkeria mota horren biktima izatearen aztarnak izatearen adierazle den Ministerio Fiskalak emandako txostenaren bidez.

- Buru-gaixotasuna duten pertsonak (medikuaren txostenarekin egiaztatuta).
- Guraso bakarreko familia bateko aita edo ama, langabetu gisa gutxienez hiru hilabetez izena emanda egonez gero. Horrekin lotuta, egoera horretan egongo da bere kargu ordaindutako jarduerarik egiten ez duten ondorengo bat edo hainbat dituen pertsona (hauekin egiaztatuta: bizikidetza-ziurtagiria, Familia-liburua eta ordaindutako jarduerarik egiten ez duten ondorengo bat edo hainbat bere kargu dituela dioen zinpeko aitortpena, baita Estatu mailako edo autonomia-erkidegoko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak emandako langabetu gisa izena emandako aldien inguruko ziurtagiriarekin ere).
- Gutxienez 6 hilabetez jarraian langabetu gisa izena emanda dauden komunitatetik kanpoko etorkinak (Estatu mailako edo autonomia-erkidegoko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak langabetu gisa izena emandako aldien inguruko ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonak, modu jarraituan gutxienez 12 hilabetez dagokion zerbitzu publikoan lan-eskatzaile gisa izena emandakoak (Estatu mailako edo autonomia-erkidegoko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak emandako langabetu gisa izena emandako aldien inguruko ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- Gutxienez 3 hilabetez jarraian langabetu gisa izena emanda dauden 45 urte baino gehiagoko pertsonak (Estatu mailako edo autonomia-erkidegoko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak langabetu gisa izena emandako aldien inguruko ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- Gutxienez 5 eta 12 hilabete artean jarraian langabetu gisa izena emanda dauden 16 eta 30 urte arteko gazteak (Estatu mailako edo autonomia-erkidegoko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak langabetu gisa izena emandako aldien inguruko ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- Adin txikikoak babesteko erakundeetatik datozen gazteak, laneratze-prozesua atera direnetik hamabi hilabeteren barruan hasiz gero (erakunde mailako dagokion ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- Toxikomanoak izandakoak (alkoholikoak eta drogadiktoak izandakoak). Hala hartuko dira, dagokion ekipo terapeutikoaren iritziz, dagokion desintoxikazio eta desohitzeko faseak gaindituta 6 hilabetez jarraian tratamenduan daudenak (dagokion Osasun Zentroak emandako ziurtagiriarekin egiaztatuta).
- Lan-kontraturik ez duten espetxeratutako pertsonak, haien espetxe-erregimenak lanpostu bat izateko aukera eskaintzen badie, eta preso ohiak, langabetu gisa izena emandakoak, betiere, kontratazioa haiek askatu zirenetik 12 hilabeteetan eginez gero (dagokion erakundearen ziurtagiriarekin egiaztatuta).



- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz laneratzeko jarduera edo esku-hartzere berezia behar duen eta hala eskatzen duen edonor (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatuta).
- Ekintza terrorista edo, talde armatuetan sartuta, bakea eta herritarren segurtasuna larri asaldatzeko helburuarekin jarduten duten pertsonen erasoak jasan duten edo jasaten dutenak. Era berean, kolektibo horretakoak direla ulertuko dira arduradunak formalki helburu horretarako osatutako taldeetan sartuta egon ez arren, helburu berbera dutenak.


Laneratzeko betebeharra modulatu egin ahal izango da kontratuaren esleipenak aurreko plantillaren subrogazioa badakar edota kontratu berriak ez badakar enpresa esleipendunerako kontratazio berrien beharrik. Aurreko kasuak, salbuespenez, motibatu eta justifikatu egin beharko dira.

Aurreko paragrafoan aurrez ikusitako kasuan izan ezik, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuen % 20 kontratu-prestazioaren exekuzioan sartzeko ezintasuna kasu bakarrean onartu ahal izango da: enpleguaren zerbitzu publikoek eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek emandako enpleguaren eskaintza betetzeko ezintasuna egiaztatuz gero, edo ekoizpen-arazoan, antolaketa-arazoan, arazo teknikoan edo arazo ekonomikoan ondorioz, horiek guztiak behar bezala egiaztatuta. Kasu horietan, kontratuaren helburu diren prestazioen tipologia egokia baldin bada, enpresa esleipendunak kontratuaren zenbatekoaren % 5 gutxienez azpikontratatu egin beharko du 2273/1985 Errege Dekretuan jasotako Enpleguaren Zentro Berezien Erregistroan, edo abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Txertatzeko Enpresen Erregistroan izena emandako enpresek. Ondorio horietarako, derrigortutako enpresek Enpleguaren eta Gizarte Gaietako Sailari Erregistro horietan izena emandako enpresen zerrenda eska diezaieke.

11.7. Gizon-emakumeen arteko berdintasunerako exekuzio-baldintza bereziak:

a) Kontratuaren exekuzioan, enpresa kontratistak edo azpikontratistak gizon-emakumeen berdintasuna bermatuko du tratuan, lanerako sarbidean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, suntsipenean, ordainketetan, kalitatean eta lan-egonkortasunean, iraupenean eta lanaldiaren ordenamenduan. Era berean, kontratuaren exekuzioak iraun bitartean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak exekuzioari atxikitako pertsonen bizitza pertsonalaren, familiako bizitzaren eta laneko bizitzaren arteko bateratzea ahalbidetzeko neurriak izango ditu.

b) Era berean, 10 langile baino gehiagoko enpresa kontratisten edo azpikontratisten aldetik sexu-erasoa eta kontratuaren exekuzioari atxikitako emakumezko langileekin lotutako sexu-arrazoiengatik eraso prebenitzeko neurriak hartuko direla bermatuko da, esaterako, jardunbide egokien kodeak egitea eta hedatzea, trebakuntza-jarduerak



edo informazio-kanpainak egitea edo prebentziorako eta erasoak jasan dutenek egin ditzaketen erreklamazio edo salaketak bideratzeko prozedura jakinak ezartzea.

c) Kontratua exekutatzen langile gehiago kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua baldin bada, kontratua exekutatzen, exekuzio-epean, gutxienez emakume bat kontratatu beharko du edo gutxienez emakume baten aldi baterako kontratazioa kontratazio mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat hartuko da plantilla osoa kontuan hartuta, emakumeak guztizkoaren % 40 baino gutxiago baldin badira.

11.8. Oinarritzko lan-eskubideetarako eta enpleguaren kalitaterako exekuzio-baldintza bereziak:

a) Enpresa esleipendunak kontratuaren exekuzioari atxikitako plantillaren % 30 gutxienez mugagabea izateko betebeharra hartuko du. Betebehar hori ez da eskatuko enpresako kontratazio mugagabeen ehunekoa plantilla osoaren % 80 baino gehiagokoa baldin bada.

b) Ehunekoa kontratuaren exekuziorako beharreko langileen guztizko kopuruarekiko kalkulatu da eta kontratuaren exekuziorako esleitutako enpresa azpikontratistak ere zenbaketa horretan sartuko dira.

c) Era berean, kontratuaren exekuzioan, ekoizpen-katean oinarritzko lan-eskubideak errespetatuko direla bermatzeko betebeharra hartuko du. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko Konbentzioak betetzeko eskakizuna izango dute, horien artean, sindikatu-askatasuna eta negoziazio kolektiboa, behartutako lana kentzea, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzizko politiko, arbaso nazional edo jatorri sozialek sortutako edonolako lanbide edo enpleguaren arloko bazterketak ezabatzea eta haurren lanaren abolizioa.


11.9. Ingurugiroa mantentzeko exekuzio-baldintza bereziak:

Zerbitzuan txostenak eta dokumentuak aurkeztea

Zehazki hala eskatzen den kasuetan soilik aurkeztuko dira dokumentuak paperean Oro har, honako ereduari jarraituko zaio:

- Laneko dokumentuak: paperaren kontsumoa murrizteko, zerbitzuak sortutako laneko dokumentu guztiak formatu elektronikoan entregatuko dira posta elektroniko edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak jaisteko estekekin edo ftp bidez).

- Azken dokumentuak: gehienak formatu elektronikoan entregatuko dira posta elektronikoz edo zerbitzari bidez, edo bestela, CD, DVD edo antzeko birgrabagarrietan eta irekietan, ondoren berriz erabili ahal izateko.



Dokumentuak inprimatzea beharrezkotzat joko balitz edo Euskal Turismo Agentziak zehazki eskatuko balu (esate baterako, laneko txostenak, bileretarako dokumentuak eta abar), esleipendunak honako hauek bete beharko ditu:

- Dokumentuak inprimatzea edo ez inprimatzea adostu kontratatzailearekin, berak zuzenean eskatu ezean
- Ahal den neurrian, inprimaketa kopurua murriztu, beharretara ahalik eta gehien egokituz (bilera bateko parte-hartzaile kopurua eta abar), alferrikako kopiarik egon ez dadin
- % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienez, kontsumitu ostekoa) edo birziklatu gabeko papera (% 20, gutxienez, baso-kudeaketa iraunkorreko zuntzen gutxienerako edukiarekin, edota birziklatutakoa).
- Dokumentuak bi aldeetatik inprimatu, zuri-beltzean (zuri-beltzekoa ulertu ezin denean soilik erabiliko da kolorea), alde bakoitzeko bi orrialde edo gehiago (hala behar denean), ahalik eta azaleztapen gutxienarekin eta plastikozko taparik gabe (birziklatzea errazteko).

Ingurumen-kudeaketa kontratua gauzatzean

Erakunde kontratatzaileak gutxienez honako eskakizun hauek (X eranskinaren arabera aplikatzen dituenek gain): betetzea eskatuko du:


- Gaikako hondakinen bilketa, eta zati desberdinak bereizita mantentzea baimendutako kudeatzailearen bidez zuzen kudeatzeko.
- Kontratuaren hasieran, kontratua gauzatzera (hondakinen kudeaketa, produktuen kudeaketa, energia- eta ur-kontsumoa murriztea, edo kontratuan ezarritako ingurumen-baldintzetatik eratorritako beste alor batzuk) zuzendutako langileak ingurumen-alorrean trebatzea.
- Batez ere ingurumeneko, laneko osasuneko eta segurtasunaren eremuko informazioa duten, eta lanpostuetan eskuragarri egongo diren laneko argibideak prestatzea.

Bideokonferentzia bidezko jarraipen-bilerak

Lekualdaketak gutxitzeko eta horietatik eratorritako ingurumen-inpaktuak murrizteko, BASQUETOUREk horrela eskatzen badu, hamabostean behingo jarraipen-bilera batzuk edo guztiak bideokonferentzia bidez egingo dira. Horretarako

12. KONTRATUA GAUZATZEA.

- 12.1. Plegu honetan aurrez ikusi gabe dagoen guztirako, zerbitzuen kontratu hau SPKLko 196. artikuluan eta hurrengoetan, eta lege testu bereko 281. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da.
- 12.2. Lanaren iraupen epea BABP honetako Karatulako **5 ATALEAN** adierazitakoa izango da, Kontratua sinatzen den egunetik hasita.
- 12.3. Kontratatzaileak, horrela ere, bete beharko ditu kontratua betetzeko epea eta




BASQUETOURrek ezarritako epe partzialak nahiz proposamen teknikoarekin aurkeztutako Lanerako Plana. Kontratistaren arrazoiak direla eta, zerbitzua emateko epe osoa edo epe partzialak berandutu edo atzeratu badira edo Lanerako Plana bete ez bada eta horrek azken epea betetzeko ezintasuna sortu badu edo epe hori bete ez bada, BASQUETOURrek bi aukera izango ditu: kontratua suntsitzea edo eguneko penalizazioak jartzea (kontratua bete gabeko prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euro), betiere BABP honetako **13 ATALEAN** beste penalizazioen bat zehaztu ez bada. Halaber, proportzio bereko penalizazioak jarriko dira kontratistak kontratua behar bezala bete ez duela ziurtatzen bada.

Kontratistaren atzerapenaren dela eta, penalizazioak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du esan nahi BASQUETOURrek eskubidez izan ditzakeen kalte-ordainak jaso behar ez dituenik.

Atzerapena kontratistari egotz ezin dakizkikeen arrazoiek eragingo balute, SPKLko 197.2 artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

- 12.4. Enpresa esleipendunak konpromisoa hartuko du kontratuaren emaitza behar bezala erabiltzeko, behar den informazio osagarriaren eta laguntza teknikoaren berri emateko (agiriak eta informazio mota guztia).
- 12.5. Enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da lanak egitean kontratua eta ezbehar arriskuak behar bezala aplikatzea, materialari zein langileei eta hirugarren batzuei dagokienez.
- 12.6. Esleipendunak bere gain hartu beharko du hirugarren batzuei eragindako kalteen truke eman beharreko kalte-ordaina, SPKLko 198. artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, haren ardura izango da BASQUETOURi edo haren menpeko beste edozein langileri eragindako kalteak ordaintzea 198. artikuluan aipatutako kausa berengatik eta salbuespen berekin.
- 12.7. Kontratua gauzatzeko lanak esleipendunaren arriskuaren eta zoriaren menpe geratuko dira eta eskubidea izango du BASQUETOURrek emandako kalte-ordaina jasotzeko SPKLko 198. artikuluan ezarritako eta finkatutako kasuetan eta eran; dena den, espedientean, gertaera aurretik, ziurtatu egin beharko du egindako lanek eta atxikitako taldeak naturak eragindako gertaerak direla eta kalteak jasatea aurrez ikusteko eta ahal den neurrian ekiditeko arrazoizko neurriak eta ardurak hartu zituela.
- 12.8. "Ikerketa" baten kasuan, zuzendariak lanen ikuskapena eta zainketa egin beharko du zehaztapen teknikoen eta kontratuko gainerako baldintzen txostena kontuan hartuz. Ikuskapen eta zainketa hori egiteko, esleipendunak aurkeztu beharreko lana sinatu beharko du behar adinako titulazioa duen teknikariak izenpetuta.
- 12.9. Lanen entrega eta gauzatzea RGLCAPe 23. artikuluan aurrez ikusita bezala egingo da.
- 12.10. Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako aldizkakotasunarekin, BASQUETOURrek



erabakiko du kontratistak egindako zerbitzu oso edo partziala bat datorren gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin. Hori adierazteko dagokion ziurtagiria bidaliko du. Eta, behar izanez gero, kontratatutako zerbitzuak egiteko edo zerbitzua jasotzean ikusitako akatsak zuzentzeko eskaera egingo dio. Egindako lanak kontratatutako zerbitzuarekin bat etortzen ez badira kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsuneen ondorioz, BASQUETOUREk atzera bota ahal izango du, ordaintzeko betebeharrak izan gabe, edo hala behar izanez gero, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidearekin.

12.11. Berme epean edo epe hori hasi aurretik, egindako lanetan akatsak edo hutsuneak daudela ziurtatzen bada, BASQUETOUREk eskubidea izango du kontratistari akatsak, urritasun teknikoak, material akatsak, ezkutuan gordetzeak edo legezko edo arauzko arau haustea zuzentzeko eskatzeko. Horretarako, dagokion epea emango zaio, baina epe horrek ezingo du hilabete bat baino luzeagoa izan.

12.12. Kontratua amaitzean, BASQUETOUREk kontratuaren xedeko lanak jasotzearen inguruko ekintza formala egingo du. Une horretatik aurrera, Plegu honetan aurrez ikusitako berme epea kontatzen hasiko da

13. JABETZA INTELEKTUALA

Esleipedunak kontratua sinatzean, egindako zerbitzuarekin erlazionatuta egon daitekeen jabetza intelektualari dagozkion eskubidea lagatzen du Basquetour-en aurrean, eskusiboki eta kosturik gabe, munduko herrialde guztietarako, legalki baimendutako gehiengo apean, besteei emateko ahalmenarekin eta hirugarrenen erabiltzeko aukeran, kudeaketarako era guztietarako (bere erreproduktzioa, eraldaketa, banaketa, komunikazio publikoa eta publikoaren eskurra) edozein medio, euskarri edo prozedimenduz, Euskadiko lehiakortasun turistikoa garatzeko asmoz.


14. LUZAPENA

Kontratua luzatu ahal izango da BABP honetako Karatulako **5 ATALEAN** aurrez ikusitakoaren arabera.

Kontratu honen indarraldia amaitzen denean Jabetzak haren iraupena luzatu nahi izango balu, Kontratistari horren berri eman beharko dio hilabete lehenago. Horrekin lotuta, luzapen horretan eskaini beharko liratekeen zerbitzuetarako aurrekontuko diru-hornidura eta garatu beharreko lanak zehaztu beharko ditu jarraitu nahi duen erabaki dezan

15. JASOTZEA ETA LIKIDATZEA

Kontratua jasotzeko eta likidatzeko era SPKLKO 205. artikuluan aurrez ikusitako eran arautuko da. Jasotzean, BASQUETOUREk lanak akats txikiekin onartzeko eskubidea izango du bere gain. Dena den, Aktan kontratistari lana baldintza ezin hobeetan utz dezan emango zaion epea finkatu beharko da. Hori gertatuz gero, akats horien zerrenda gehitu beharko da kontratistaren adostasunarekin edo gabe izenpetuta. eta gehienez hilabete bateko (1) epea izango du horiek konpontzeko edo zuzentzeko.



Epe hori igaro ostean, kontratistak Akta horretan zehaztutako akats guztiak konpondu edo zuzendu ez baditu, BASQUETOUREk eskubidea izango du kontratua ebazteko, eta kontratistak bete gabeko baldintza horrek eragindako kalte-galeren truke kalte-ordaina eman beharko du. Edonola ere, behin betiko bermea jasoko du eratuta badago.

16. KONTRATUA ETA AZPIKONTRATUA LAGATZEA

16.1. Kontratua lagatzeko baldintzei dagokienez, SPKLko 209. artikuluan ezarritakoa eskatu ahal izango da. Edonola ere, kontratuaren lagapena BASQUETOUREk aurrez eta espresuki baimendu beharko du.

Kontratua ezingo da laga kontratua esleitzearen arrazoi nabarmenak hasierako kontratistaren gaitasun pertsonalak edo teknikoak izan direnean.

16.2. Kontratistak egin nahi dituen azpikontratazioetan aplikatuko dira SPKLko 210. artikuluan ezarritako xedapenak, baina BASQUETOUREk azpikontratazioaren berri emateko egindako idatzian aipatu aginduan ezarritako baldintzak ez ezik, azpikontrataziorako baldintza teknikoak ere agertuko dira.

BASQUETOUREk azpikontratazioaren aurka egiteko ahalmena izango du, modu arrazoituan, proposatutako azpikontratistaren kaudimen teknikoa ziurtatu gabe geratu dela edota azpikontratua gauzatzeko baldintza teknikoak ez direla behar bezala ziurtatu ikusten badu.

Azpikontratistek soilik kontratista nagusiaren aurreko betebeharra izango dute; beraz, kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa BASQUETOUREn aurrean, Plegu honen eta kontratuan agertzen diren terminoen arabera.

17. KONTRATUAREN AMAIERA ETA BERME EPEA


17.1. Amaierara iritsi delako, bete egin delako edo suntsitu egin delako amaituko da kontratua.

17.2. Kontratuaren suntsitzearen arrazoiak BABP honetan, SPKL-ren 206 eta 284 artikuluetan eta Kode Zibilean ezarritakoak izango dira.

17.3. Berme epea Kontratuan finkatuko da, eta kontratuaren zerbitzua Pleguaren 12.12. klausulan formalki jasotzen den egunetik aurrera kontatuko da. Dena den, berme epea ez da izango BABP honetako **6 ATALEAN** adierazitakoa baino txikiagoa.

Berme epea pasatuta, BASQUETOUREk ez badio kontratistari zerbitzua ematean inolako ohar, akats edo hutsunerik adierazi, kontratua eta kontratistaren erantzukizuna amaitutzat emango dira, isileko akats edo hutsuneen kasuan izan ezik. Kasu horretan, kontratistak izango du ardura, berme epea pasatu bada ere.

17.4. Kontratua kontratistari egotz dakioken arrazoiak direla eta suntsituko balitz, kontratuko prestazioak itzultzeaz gain, BASQUETOUREk eskubidea izango du kontratistak ez betetzearen ondorioz sortutako kalteen kalte-ordaina jasotzeko.




18. ESKUDUNTZA DUEN JURISDIKZIOA

Jurisdikzio zibilak izango du eskuduntza:

- 18.1. Kontratua prestatzearekin eta esleitzearekin lotutako gaien berri izateko (SPKLko 21. artikulua).
- 18.2. Kontratua gauzatzearekin, haren helburuekin, burutzapena eta ebazpenarekin lotuta agertu ohi diren gaiak ebazteko.
- 18.3. Bi alderdiak geratuko dira beren borondatez Bilboko epaitegien eta auzitegien eskumenaren menpe, eta espresuki egingo diote uko dagokien beste edozein forori.

Bilbao 2011.eko maiatzaren 13.ean

Ana Izaguirre Zabala
Zuzendari Nagusia



1. ERANSKINA
PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

.....jaunak/andreak,

NAN zk. hau duenak:,

.....enpresaren izenean,

Enpresaren IFK:


bulegoak (helbidea):.....

hala ziurtatzen dut Kontratazioko Oinarrizko Baldintzetan aurrez ikusitako moduan, eta ondorengoa adierazten du:

1. BASQUETOUREn Kontratatzaile profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen duela, hots, [] kontratua esleitzeko LEHIAKETA deitzen duena.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak eta Kontratazioko Oinarrizko Baldintzak eta lehiaketa arautzen duen gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dituela.
3. Era berean, ezagutzen dituela Kontratazioko Oinarrizko Baldintzen Pleguko Lehen Klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak.
4. Ados dagoela eta borondatez eta oso-osorik eta aldaketarik gabe onartzen dituela aurreko 2. eta 3. ataletan eta ondorengo 5. atalean aipatzen diren agiri eta legezko eta arauzko testuak, baita dagokion zerga administrazioak BASQUETOUREn enpresaren datuak lagatzeko baimena eskeintzen duen cláusula.
5. Aipatu kontratua burutzeko konpromisoa hartzen duela gehienez [] euroren truke (gehi [] BEZa). Guztira, [] euro izango lirateke (zenbaki eta letraz adierazi)

[Lekua, data eta sinadura]

(Aldi baterako elkarteen kasuan, proposamena elkartearen bazkide guztiek sinatu beharko dute)



2. ERANSKINA

LIZITATZAILEA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKUAN EZ AURKITZEAREN AITORPENAREN EREDUA (Pertsona juridikoak)

.....jaunak/andreak,

NAN zk. hau duenak:,

.....enpresaren izenean,

Enpresaren IFK:


bulegoak (helbidea):.....

Ziurtatzen du bera eta ordezkatzeko duen Merkataritza Sozietatea eta Sozietatearen Gobernu Organoak osatzen dituzten pertsonak ez daudela debeku egoera bakar batean ere, Sektore Publikoko Kontratuen inguruko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 49.1 eta 50. artikuluetan aipatutakoak kontratatzeke.

Era berean, adierazten du enpresa horrek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela.

Eta lizitatzailleek aurkeztu beharreko dokumentaziorako, BASQUETOUREkin kontratatze aldera, ziurtagiri hau egiten du.

[Lekua, data eta sinadura]



3. ERANSKINA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN AITORPEN EREDUA

.....jaunak/andreak,

NAN zk. hau duenak:,

.....enpresaren izenean,

Enpresaren IFK:


bulegoak (helbidea):.....

Bere erantzukizunpean aitortzen du:

Udal zergen, eta zehazki, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren inguruan aplikatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera, zerga horren matrikulan alta aitorpena aurkeztu beharra daukala ondorengo epigrafeetan, eta datako egunean baja eman gabe duela:

.....
.....
.....
.....
.....

[Lekua, data eta sinadura]



4. ERANSKINA

Lizitatzailleak zerbitzu/proiektuen betearaztapenerakoan ingurunearekiko eragina murrizteko neurriak dituela adierzaten du, hurrengo eremuetan:

Bai/Ez	Enpresan betetzen diren arauak
	1. Erabiltzen ditugun lehengaiek ingurumena errespetatzen dute, gure jardueraren garapenean produktu arriskutsu edo pozointsuen erabilera mugatu eta iraizten ditugu.
	2. Ekipamendu energikoki eraginkorrak ditugu, energi kontsumoa murrizteko programatutak daude, eta pareko jokabide arauak ezartzen ditugu.
	3. Argiteri eta klimatizazio sistema energikoki eraginkorrak ditugu, energia aurrezteko sistemak baita ere eta ingurune jokabide arauak ezartzen ditugu eremu honetan.
	4. Ura aurrezteko ekipamendu eta sistemak ditugu eta pareko jokabide arauak ezartzen ditugu.
	5. Gure jarduerari elkartuta dagoen mugikortasunaren ondorioz sor daitekeen kaltea murrizteko neurriak ezartzen ditugu .
	6. Hondakin arriskutsuak indarreko arauteriaren arabera kudeatzen ditugu, hauek zuzenki tratatuak izanez garbiguneen edo hondakin kudeatzeatzaille baimenduen bidez.
	7. Hondakin ez arriskutsuak banatzen ditugu udal zaborrontzietan uzteko, garbiguneetara eremateko edo birziklatzaileei emateko.
	8. Langileei ingurune hezkuntza eskeintzen diegu, jardueraren ingurune inpaktuari buruz eta nola murrizteko moduak ezagutu ditzaten.
	9. EMAS, ISO 14.001 edo Ekoscan sistemak ditugu ingurunearen kudeaketarako, eta beste batzuk ez ziurtatutak, frogatu ahal ditugunak.
	10. Aurreko puntuetan ez aipatutako ingurumenarekiko beste jarduera batzuk martxan jarri ditugu edo beste ingurumen ekimenetan parte hartzen dugu.

Izen Abizenak eta sinadura:

NAN:

..... ren ordezkaritzan

